

“Kerja” - Bezeroarekiko harremanak

Bezero berriak erakartzeko, ikastetxeekin harremanetan jarriko gara eta haien bidez gure enpresa ezagutaraziko diegu interesatuta egon daitezkeen ikasleei. Horretarako, hitzaldiak eman, erronkak prestatu (ikasleek haien gaitasunak deskubritzeko), eskuorriak banatu eta QR kodea itsatsiko ditugu. Eskuorriak eta QR pegatinak leku publikoetan ere banatuko ditugu.

Bezeroak mantentzeko, jakinarazpenak bidaliko dira app-aren bitartez eta mezuak posta elektronikora ere ailegatuko dira, lanpostu libreak daudela berri eman ez edota denboraldi luzea daramatela lanik egin gabe adieraziz.

Laburbilduz, gure zerbitzua automatizatu izango da. Hala ere, bezeroei laguntza pertsonalizatu eman ahalko diegu gure lokal fisikoaren bidez.